

Komunikazio-estilo feminista lantzeko ikastaroa

ECT kreditu kopurua: 0,5

Hartzaileak

Edozein jakintza-arloko UPV/EHU-ko irakasle.
Ikastaroa UPV/EHUko berdintasun zuzendaritzarekin koordinatuta antolatu da.

Sarrera / Ikastaroaren deskribapena

Emakumeon presentzia areagotu bada esparru publikoan, oraindik badira emakume askok ezetz esaten diotenak hitzaldi, debate edo saio batean parte hartzeari. Gauza asko daude horretan, baina horietako bat, zalantzarik gabe, publiko aurrean hitz egiteko beldurra da, oso maskulinizatuta dagoen eremu batean aske eta lasaitasunez aritzea, alegia.

Ikastaro honetan, horretaz arituko bagara ere, harago joango da, eta emakumeen eta gizonen sozialiazioan dauden ezberdintasunetan oinarrituta, komunikazio-estilo ezberdinak ere identifikatuko ditugu, baita horietatik abiatuta, estilo komunikatibo feminista lantzeko oinarriak ezarri eta ikasi ere.

Ikastaroa praktikoa izango da, eta ikaslearen esperientzietatik zein lanketatik abiatuko gara teoriarik azaltzen diren kontzeptuak eta teknikak aplikatzeko, norberak egin beharreko auto-ebaluazio partekatutako batean oinarrituta. Jakitun gara abiapuntu ezberdinetatik hasiko den ikasketa bat dela, eta horrek ere aberasten du ikasketa-prozesu bera.

Ikastaroaren ikaskuntza-emaitzak

Komunikazio-estilo ezberdinak (aserziozkoa, pasibo, agresiboa) identifikatu eta genero-ikuspegitik aztertu.

Komunikazio-estilo feminista (hizkuntza eta komunikazio ez-androzentrikotik harago) ezagutu eta landu, bai pertsonarteko komunikazioan zein esparru publikoan.

Ikasleei komunikazioa lantzeko tresnak eta baliabideak eman, bere ahalduntze prozesuan baliagarriak izan daitezkeenak.

Metodologia

Metodologia parte-hartzailea izango da. Kasu partikularrak kudeatzeko estrategia edo tresnak aztertuko dira.

Egitaraua /gaiak

- a) Komunikazio-estiloak
 - a. Komunikatzaile pasibo, agresibo eta asertiboa
 - b. Komunikazio-estiloak generoaren ikuspegitik
 - c. Komunikazio feminista lantzeko baliabideak

- b) Emakumeak eta gizonak lan-esparruetan
 - a) Esparru formalak eta informalak.
 - b) Mansplaining eta beste jarrera matxistei aurre egiteko estrategiak
 - c) Eztabaidaren antolaketa.
 - d) Iruzurgilearen sindromeari aurre egitea

- c) Emakumeen komunikazioa esparru publikoan
 - a) Asertzizko komunikazioa lantzen
 - b) Beldur eszenikoari aurre egiteko teknikak
 - c) Segurtasunez komunikatzeko estrategiak

Evaluazioa / Akreditazioa

Akreditazioa lortzeko bete behar diren baldintzak:

- bertaratutako orduen % 100era joatea
- Ikastaroan eskatutako lanak egitea

Datuak

Iraupena

0,5 ECTS

Datak

Ekainaren 11 eta 17 (astearteak)

Ordutegia

10:30etik 13etara

Campusa

Leioa (Gizarte eta Komunikazio Zientzietako Fakultateko C Mintegia)

Tokia

Onartutakoei jakinaraziko zaie

Parte-hartzaile kopurua

20

Hizkuntza

Euskara

Irakaslea

Arantza Gutierrez Paz

Izena emateko epea

Deialdia zabaldu eta astebetez luzatuko da izena emateko epea

Izena emateko baldintzak eta matrikula baliogabetzea

Inskripzioa langilearen atariaren bidez egingo da. Parte-hartzaileak izena emateko ordenaren eta hautaketaren lehentasunaren arabera hautatuko dira.

Lantegian izena eman eta onartua izan den norbaitek ezin izango balu bertara joan 72 ordu aurretik jakinaraz dezan eskatzen diogu, sortutako hutsunea kanpoan geratu den beste pertsona bati eskaintzeko.